

Sarrera

Liburu honen jatorrian UEUren Filosofia Sailaren bi egitasmo jakin daude. 2023ko uztailean, UEUren Udako Ikastaroen barnean egin zen «Filosofo Euskaldunen I. Bilkura»-tik eta Sailak urte horretan zehar antolatutako «Euskal pentsalariak Bigarren Hezkuntzako curriculum berrian» hitzaldi-ziklotik osatu dugu liburuaren muina. Helburuak ere egitasmo horietan antzeman daitezkeenak dira, gutxi-asko: euskaraz eta Euskal Herritik jardute(n) duten pentsalarien lanak elkarrizketan, zirkulazioan jartzea bateko; pentsatutako hori, gurean jorratu diren auziak eta horiei erantzuteko saiakerak transmititzea besteko.

Horretarako lan-tresna bat izan nahi du liburuak. Etorkizuneko pentsalariak hutsetik sortzen ez direla jakitun, eskura jarri nahi ditu erreferentziak, pentsagaiak, loturak eta elkarrizketak; pentsatzen dugulako horiek ezagutuz, eztabaidatuz eta aberastuz etorriko direla garabiderik interesgarrienak. Horretarako, datozen kapituluetan irakurleak aukera izango du Euskal Herriko zenbait pentsalariaren lana ezagutzeko edo horietan sakontzeko. Honakoa ez da norabide horretan dagoen lan bakarra, ezta osatuena ere. UEUk berak argitaratua du, adibidez, *Euskal Herriko pentsamenduaren gida*, eta irakurleak beste irakurgai andana aurkituko du liburuan zehar, asmo eta espiritu berarekin sortutako lanena.

Hala ere, liburu honek gai batzuetan sakontzeaz haragoko ekarpena egiten du. Pentsamenduaren transmisioari begira, abagune berezian gaudela sumatzen dugu. Alde batetik, badago tradizioa aztertu eta ezagutaraztera begira egin den lan multzoa, badaude egunean-egunean ikerketa hori bideratzeko katedra eta bestelako ikertegiak. Bestetik, EAEko Batxilergoko curriculumean euskal pentsamendua sartzeko lehen saiakera ezagutu dugu berriki. Bere muga guztiekin ere —izen solteetan oinarritua, gainkargatutako eduki multzo baten barruan, lantzeko materialik gabe— ate bat ireki zaio filosofiako edo antropologiako auzi handiak modu kokatuan eta hurbileko errealitatek abiatuta ere lantzeko. Azkenik, badago pentsamendua lantzeaz gain transmititu ere egin behar delako kontzientzia bat; euskal kulturaren eta pentsamenduaren transmisioaren kezka nabari da, baina baita hari erantzuteko gogo eta norabidea ere. Esan bezala, abagune berezia daukagu, besteak beste, Euskal Herritik pentsatutakoa gure hezkuntzaren sistema eragilean txerta daitekeelako. Liburu honen ekarpen behinena hor kokatzen dugu: Bigarren Hezkuntzan euskal pentsamendua lantzeko materiala eta erreferentzia-sistema eskaintzen du. Lanabesak, abagune berezian harrobi-lanari goz ekiteko.

Gauza ebidenteak dirudite goikoek, arruntak ere bai, horiek oinarri hartuta abagune bereziaz hitz egiteko. Baina ez da hainbeste eskolatzeak eta kulturaz jabetzeak euskalduntasunari uko egin beharra esan nahi zutela. Benetan pentsatu zen gogoeta jaso eta euskara —eta metonimiaz, euskalduna— oximoron bat zirela, historiarik eta kulturarik gabeko herri bat zela euskaldunena. Kanpotik, txarrean, ideia horrek erdeinua, mespretxua eta supremazismoa ekarri zituen; txarrean, exotizazioa eta folklorizazioa. Barrutik, euskaldunek eurek ere sinetsi zuten kontua, ordea, eta horrela etorri ziren berezitasun-beharra, autogorrotoa, gutxiagotasun-konplexua, itxikeria eta ezezagutza.

Baina guztiak ez dira mespretxu- eta autogorroto-joko horretan geratu. Ezezagutza horri aurre egitea da gainerako zama guztiak kentzeko neurririk egokiena. Eta horrela jabetzen gara pentsalari batzuek, arrakala horietatik abiatuta, erantzunak sortu dituztela, bide berriak ireki, euskara landu, kultura aberastu, jendea ahaldundu. Unean uneko auziei, kezkei, eztabaidei erantzunez pentsamendua birsortu dute, lehendik pentsatutakoak eraberrituz, zabalduz, elkarrizketa berriak bilatuz, hala kanpoan nola barruan. Ikuspegi horiei guztiei esker, Euskal Herriko pentsamenduari begi berriz behatzeko moduan gaude: pentsamendu-tradizioarik badugun edo daukagunak merezi duen eztabaida subordinatzailerik gabe; berezitasun-behar exotizatzaileak utzi eta ideien joan-etorria bilatuz, guretik nazioartera eta nazioartetik gurera; iraganeko auzietatik gaur egunerako zer ikas daitekeen eta hori nola transmititu nahi dugun pentsatuz.

Horrela, lehen kapituluaren Jon Jimenezen lana dator. 2022an UEUren Irakas-kuntza Masterrean MALerako ireki zuen ikerketa-ildoan oinarri, ekarpen hirukoitza egiten du liburuan: giza habitat zehatz baten filosofiaren historia egiteko erabil daitezkeen irizpideak eztabaidatu, Bigarren Hezkuntzako legedian Euskal Herriko pentsamenduaren historiak duen lekua argudiatu eta historia horren hiru kapitulu nagusi jorratzen ditu.

Liburuko 2., 3. eta 4. kapituluek UEUko Filosofia Sailak antolatutako hitzaldi-zikloa dute oinarri, zenbait euskal pentsalari Bigarren Hezkuntzako Curriculum berrian sartu zirela eta. Bigarrean, Haritz Azurmendik Joxe Azurmendiren pentsamendura sarbide bat eskaintzen du; beste hainbeste egiten du Alaitz Aizpuruk, hirugarrenean, Txillardegirekin. Bi artikuluetan pentsalarien kokapen historiko-biografiko bat ematen da, eta haien obran oinarritzko diren zenbait ideia aurkeztu ondoren, Bigarren Hezkuntzan lantzeko egokiak izan daitezkeenak. Horrekin batera, Azurmendiren eta Txillardegiren obran sakontzeko hainbat tresna aurkezten dira, Bigarren Hezkuntzako irakasleek eta irakurle interesatuek euren kabuz sakon dezaten errazteko. Laugarren kapituluaren, berriz, Mari Luz Estebanek eta Jone Miren Hernandezek pentsamendu antropologiko feministak Euskal Herrian izan duen bilakaera jorratzen dute. Bilakaerarekin batera, antropologia feministak euskal antropologiara zer inpugnazio ekarri zituen azaltzen dute, zer metodo eta ikuspegi berri txertatu zituen. Ikuspegi horretatik euskal tradizioak eta mitoak nola berrirakurri

diren azaltzen dute, eta hizkuntzaren auzia nahiz gorpuztasuna antropologiatik ikertzeko sortu diren jite berriak adierazten dituzte.

Azken bi kapituluak «Filosofo Euskaldunen I. Bilkura»-rako prestatutako lanak dira, biak ala biak ere lotura dutenak euskal pentsamenduari. Xabier Irujok eta Iker Arranzek Jorge Oteizaren proiektu pedagogiko baten azterketa dakarte, lehenak zuzenean ezagutzeko aukera izan zuen Labadora Metafisikoarena. Proiektuaren testuinguru historikoa aurkezten da, batetik, azterketa historikoa, Irujoren lehen pertsonako testigantzak tartekatuz; bestetik, Oteizaren proiektuan funtsezko diren askatasunaren eta ezagutzaren ideiak eztabaidatzen dira filosofiaren ikuspuntutik. Azkenik, liburua Iñaki Zabaleta Gorrotxategiren lanak ixten du. Bertan, Wilhelm von Humboldten eta euskaldunen arteko harremana aztertzen da, bereziki hark Euskal Herrian zehar egindako bisitak harengan utzi zuen arrastoa. Bisita horrek euskaldunei buruzko ikerketa monografiko bat egiteko proiektua piztu zion Humboldti; egitasmo horren xehetasunak lantzen ditu Zabaletak, XIX. mendeko antropologia konparatuaren testuinguruan kokatuz eta euskaldunen azterketaz geroztik hizkuntzak hartzen duen garrantzia gero eta handiagoaz gogoeta eginez.

Gaiez eta jatorriz askotarikoak izanda, kapitulu bakoitzak bere bideak, bere erreferentziak dakartza. Hala ere, badaude elkarren arteko keinuak eta zubiak. Eta, jakina, badaude interpretazio kontrajarriagoak eta osagarriagoak. Beude. Euskal pentsamendua ez dugu gauza itxi eta koherente bat balitz bezala ulertzen, ezpada Euskal Herria, bertako jendea, gurutzatu duten auzien aurrean irekitako bide-sare baten gisan; mapa bat, bide eta norabide askotakoa. Bistan dena, hona ekarri ditugun bideak baino askoz gehiago kabitzen dira mapa horretan. Are gehiago, mapa horrek arakatzeko dauden eremuak eta irekitzeko dauden bideak ere badauzkala uste dugu. Egon izan diren eta egun dauden bideak ezagutuz, berrezagutuz, ahanzturatik ateraz eta harremanetan jarritz, espero dugu sortuko direla berriak, bai bideak, bai bidegileak. Eta espero dugu bide horiek joan-etorrikoak izango direla, gure artean, guretik kanpora eta auzo-herrietatik gurera, orain arte izan diren bezala.